

Kalitatea Hezkuntzan sarea **58 ikastetxe publikok** osatzen dugun taldea da, 20.000 ikasle eta 2.000 irakasle barne hartzen dituena. 2000. urteaz geroztik dihardugu elkarlanean.

Hezkuntza sarearen **kalitatea indartzeko helburuarekin** sortu zen eta gaur egun gure lanak ikastetxe osoari eragiten dio: plangintzan, antolakuntzan, koordinazioan, ikaste-irakaste prozesuan, hobekuntza esparruetan, dokumentazioaren kudeaketan eta baita ebaluazioan ere.

Partaide guztion artean lantalde koordinatuak bultzatzen ditugu, esperientziak trukatu, eta prestakuntza zein berrikuntza errazte aldera.

Sarearen partaide den ikastetxe bakoitzak ikaslearen hezkuntza integrala xede hartuta planifikatzen du curriculuma eta zehazten ditu metodologia zein ebaluazioa.

Horrek guzti horrek aberastu egiten du **ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Proiektua**.

